

XEDAPEN OROKORRAK

HEZKUNTZA SAILA

5314

AGINDUA, 2017ko urriaren 16koa, Hezkuntzako sailburuarena, ikastetxeetako teknologia-heldutasuneko ereduak (IKT heldutasuneko ereduak) onartzen dituen, eta ikastetxeetako heldutasun-mailak egiaztatzeko ziurtagiriak eta zigiluak ezartzen dituen irailaren 11ko 174/2012 Dekretuaren eranskina eguneratzen duena.

174/2012 Dekretuak, irailaren 11koak, ikastetxeetako teknologia-heldutasuneko ereduak (IKT heldutasuneko ereduak) onartzen ditu, eta ikastetxeetako heldutasun-mailak egiaztatzeko ziurtagiriak eta zigiluak ezartzen ditu.

Azken xedapenetatik lehenak zehazten duenez, hezkuntza-gaietan eskumenak dituen sailburuak eguneratu ahal izango du dekretu honetako eranskina.

Europar Batasunak DIGCOMP proiektua (Europar gaitasun digitala garatzeko eta ulertzeko esparru-proiektua) hasi zuen 2010ean, Europako herritar guztien gaitasun digitalerako esparru-proposamen bat osatzeko. EBko herrialde kideetako ordezkariak onartu zuten, Hezkuntza eta Entretanimenduko «IKTak eta Hezkuntza» izeneko Lantalde Tematikoan (E&T 2020, 2013ko maiatza) eta 2013ko irailean bukaerako txostena argitaratu zen: DIGCOMP: A Framework for Developing and Understanding Digital Competence in Europe.

Gaitasun digitalak bost arlo hartzen ditu. Gainera, esparruak bost arlo horietako bakoitzerako hogeita bat eskumen zehazten ditu, ezagutzen, trebetasunen eta jokabideen arabera.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2015eko urriaren 6ko Aginduaren bidez, lehen aldiz eguneratu zen irailaren 11ko 174/2012 Dekretuaren eranskina.

Aurretik azaldutakoagatik, eta gure zentroetako errealitate digitala dinamikoa denez, ikastetxeetako teknologia-heldutasuneko ereduak (IKT heldutasuna) berriz eguneratu beharrean gaude; hartara, eredu horren definizio zehatzagoa eta garaikideagoa lortuko dugu.

Eta horren ondorioz, hau

XEDATZEN DUT:

Ikastetxeetako teknologia-heldutasuneko ereduak (IKT heldutasuneko ereduak) onartzen dituen, eta ikastetxeetako heldutasun-mailak egiaztatzeko ziurtagiriak eta zigiluak ezartzen dituen irailaren 11ko 174/2012 Dekretuaren eranskina eguneratzea.

Agindu honen eranskinak aipatu dekretuarena ordeztuko du.

AZKEN XEDAPENA.– Indarrean jartzea.

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko urriaren 16a.

Hezkuntzako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.

ERANSKINA, IRAILAREN 11KO 174/2012 DEKRETUARENA

1.– Irakaskuntza-prozesuak.

	Oinarrizko maila	Tarteko maila	Maila aurreratua
1.1.– Programazioa	<p>Irakasleen % 50ek, gutxienez, formatu digital editagarrian egiten du programazioa.</p> <p>Programazioetan gaitasun digitalak aipatzeaz gain, eredu-jardueren, webguneen eta plataformen baliabide digitalak ere jasotzen dira. Indarrean den hezkuntza-esparrua oinarritzat duten gaitasun digitala ebaluatzeko irizpideak ere jasotzen dira.</p>	<p>Irakasleen % 75ek, gutxienez, formatu estandarizatuan egiten ditu programazioak, eta ikastetxeko sarean erabil daitezke.</p> <p>Programazioetan gaitasun digitalak aipatzeaz gain, eredu-jardueren, webguneen eta plataformen baliabide digitalak ere jasotzen dira. Indarrean den hezkuntza-esparrua oinarritzat duten gaitasun digitala ebaluatzeko irizpideak ere jasotzen dira.</p>	<p>Irakasleen % 95ek koaderno digitalaren bidez prestatzen eta jarraitzen ditu programazioak.</p> <p>Programazioetan gaitasun digitalak aipatzeaz gain, eredu-jardueren, webguneen eta plataformen baliabide digitalak ere jasotzen dira. Indarrean den hezkuntza-esparrua oinarritzat duten gaitasun digitala ebaluatzeko irizpideak ere jasotzen dira.</p>
1.2.– Baliabideak	<p>Gaitasun digitala garatzeko mailen, zikloen, arloen edo irakasgaien arabera erabili behar dituzten gutxieneko oinarrizko baliabideak erabakitzen ditu ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenak, eta ikasle eta irakasleei bermatzen dizkie: gailuak (ordenagailua edo tableta), programak edo aplikazioak, liburu digitalak edo bestelako edukiak, plataformak eta Interneteko zerbitzuak.</p>	<p>Gaitasun digitala garatzeko mailen, zikloen, arloen edo irakasgaien arabera erabili behar dituzten gutxieneko oinarrizko baliabideak erabakitzen ditu ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenak, eta ikasle eta irakasleei bermatzen dizkie: gailuak (ordenagailua edo tableta), programak edo aplikazioak, liburu digitalak edo bestelako edukiak, plataformak eta Interneteko zerbitzuak.</p> <p>Gainera, ikastetxeko Zuzendaritzak erabaki ere egiten du aipatutako baliabideak erabiltzearen ondorioz ikasleen ekoizpena mailen edo zikloen eta arloaren edo irakasgaiaren arabera zein izango den.</p>	<p>Gaitasun digitala garatzeko mailen, zikloen, arloen edo irakasgaien arabera erabili behar dituzten gutxieneko oinarrizko baliabideak erabakitzen ditu ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenak, eta ikasle eta irakasleei bermatzen dizkie: gailuak (ordenagailua edo tableta), programak edo aplikazioak, liburu digitalak edo bestelako edukiak, plataformak eta Interneteko zerbitzuak.</p> <p>Gainera, ikastetxeko Zuzendaritzak erabaki ere egiten du aipatutako baliabideak erabiltzearen ondorioz ikasleen ekoizpena mailen edo zikloen eta arloaren edo irakasgaiaren arabera zein izango den.</p> <p>Ikastetxeak ikasleen gaitasun digitalari buruzko irteera-profilaren dokumentu egokitua du.</p>

	Oinarrizko maila	Tarteko maila	Maila aurreratua
1.3.– Ikasgelako erabilera	<p>Arloen % 40k gutxienez ikastetxeak zehaztutako baliabide digitalak erabiltzen dituzte unitate didaktikoetan.</p> <p>Ikastetxeak mailen arabera sekuentziatu dituen baliabide eta gaitasunekin lotuta daude jarduerak.</p> <p>Ikasleek edukiak ekoizten dituzte (HBI motakoak gehienbat), ikastetxeak zehaztutako baliabideen eta gaitasunen arabera.</p> <p>Ikasleek eta irakasleek gordailu partekatu komunak erabiltzen dituzte.</p>	<p>Arloen % 60k gutxienez ikastetxeak zehaztutako baliabide digitalak erabiltzen dituzte unitate didaktikoetan.</p> <p>Ikastetxeak mailen arabera sekuentziatu dituen baliabide eta gaitasunekin lotuta daude jarduerak.</p> <p>Ikasleek edukiak ekoizten dituzte (HBI motakoak gehienbat), ikastetxeak zehaztutako baliabideen eta gaitasunen arabera.</p> <p>Ikasleek eta irakasleek gordailu partekatu komunak erabiltzen dituzte, eta haien ekoizpenak katalogatuta gelditzen dira horietan.</p>	<p>Arloen % 90ek baino gehiagok ikastetxeak zehaztutako baliabide digitalak erabiltzen dituzte unitate didaktikoetan.</p> <p>Ikastetxeak mailen arabera sekuentziatu dituen baliabide eta gaitasunekin lotuta daude jarduerak.</p> <p>Ikasleek HBI motako edukiak ekoizten dituzte, ikastetxeak zehaztutako baliabideen eta gaitasunen arabera.</p> <p>Ikasleek eta irakasleek gordailu komun partekatuak erabiltzen dituzte, eta haien ekoizpenak katalogatuta gelditzen dira horietan; gainerako hezkuntza-erkidegoak ekarpenak, oharrak eta partaidetza-iruzkinak ere egin ditzakete.</p>
1.4.– Ikasteko Ingurune Birtualak (IIB)	<p>DBHren 1. mailatik aurrera, maila eta ikasgela bakoitzeko arloen % 20k gutxienez unitate didaktikoak garatuta dituzte IIB (Ikasteko Ingurune Birtuala) baten barruan.</p>	<p>Lehen Hezkuntzako 5. mailatik aurrera, maila eta ikasgela bakoitzeko arloen % 40k gutxienez unitate didaktikoak garatuta dituzte IIB (Ikasteko Ingurune Birtuala) baten barruan.</p>	<p>Lehen Hezkuntzako 5. mailatik aurrera, maila eta ikasgela bakoitzeko arloen % 70k gutxienez unitate didaktikoak garatuta dituzte IIB (Ikasteko Ingurune Birtuala) baten barruan.</p>
1.5.– Laguntza eta kalifikazioak	<p>Ebaluazio bakoitzean txostenak eta nota-buletinak formatu digitalean sortu eta gordetzen dira.</p>	<p>Ikasleen ebaluazioaren datuak (kuantitatiboak eta kualitatiboak) eskuz edo automatikoki maiz erregistratzen dira.</p> <p>Ikastetxeko sarean erabil daitekeen aplikazio baten bidez kudeatzen dute ikasleen bertaratzea.</p> <p>Informazioa eskuragarria da.</p>	<p>Ikasleen ebaluazioaren datuak (kuantitatiboak eta kualitatiboak) Interneten eskuz edo automatikoki erregistratu ohi dituzte.</p> <p>Ikasleen bertaratzea Interneten erregistratu ohi dute.</p> <p>Familien eskuragarri dago informazioa.</p>
1.6.– Harrera, tutoretza eta orientazioa	<p>Harrerari, tutoretzari eta/edo, beharrezko bada, orientazioari buruzko dokumentu nagusiak digitalizatuta daude, eta ikastetxeko ordenagailu batetik edo zenbaitetatik eskura ditzakete irakasleek.</p>	<p>Harrerari, tutoretzari eta, beharrezko bada, orientazioari buruzko dokumentuak ikastetxeko sarean eskura ditzakete ikasleek eta irakasleek, erabilera-profilen arabera.</p> <p>Tutoretza Planean eta Orientazio Planean ikasleentzako jarduera digitalak ere badaude.</p>	<p>Harrerari, tutoretzari eta, beharrezko bada, orientazioari buruzko dokumentuak Interneten erabil daitekeen web-aplikazio baten bidez eskura ditzakete ikasleek, irakasleek eta familiek.</p> <p>Tutoretza eta orientazioa babesteko eduki eta jarduera digitalek erreferentziako tokia dute Interneten, eta horretara jotzen dute ikasleek eta familiek.</p>

	Oinarrizko maila	Tarteko maila	Maila aurreratua
1.7.– Inklusioa	Ikastetxeak instalazio eta baliabideak jartzen ditu ikasleen esku, Internet eta tresna ofimatikoak erabiltzeko; ikasturtean zehar, 100 orduz, gutxienez.	Ikastetxeak instalazio eta baliabideak jartzen ditu ikasleen esku, Internet eta tresna ofimatikoak erabiltzeko; ikasturtean zehar, 130 orduz, gutxienez. Gainera, eten digitala saihesteko, bestelako neurriak ere badaude teknologia erabiltzea erraztearren: <ul style="list-style-type: none"> • Eguneroko arazoetarako laguntza teknikoa. • Diru-laguntzak. • Konpontzeko protokoloa. • Ikaskuntza-jardueren pertsonalizazioa. • Jarrera orokorra eta irisgarritasuna duten web-orriak. 	Ikastetxeak instalazio eta baliabideak jartzen ditu ikasleen esku, Internet eta tresna ofimatikoak erabiltzeko; ikasturtean zehar, 160 orduz, gutxienez. Gainera, eten digitala saihesteko, bestelako neurriak ere badaude teknologia erabiltzea erraztearren: <ul style="list-style-type: none"> • Eguneroko arazoetarako laguntza teknikoa. • Diru-laguntzak. • Konpontzeko protokoloa. • Ikaskuntza-jardueren pertsonalizazioa. • Jarrera orokorra eta irisgarritasuna duten web-orriak.
1.8.– Prestakuntza	Irakasleen gaitasun digitala garatzeko prestakuntza-plana dago, urteko planaren barruan (Hobekuntza Plana, IKT Plana...). Irakasleek prestakuntza-jarduera horietan parte hartzen dute.	Irakaskuntzako eta irakaskuntzatik kanpoko langileek garatu beharreko gaitasunak ezartzen dituen dokumentu bat du ikastetxeak, prestakuntza-planerako oinarri gisa balio duena. Gainera, irakaskuntzako eta irakaskuntzatik kanpoko gaitasun digitala garatzeko prestakuntza-plana ere badago, urteko planaren barruan (Hobekuntza Plana, IKT Plana...). Familientzako prestakuntza-planak daude jasota. Irakasle eta irakaskuntzatik kanpoko langile gehienek prestakuntza-jarduera horietan parte hartzen dute. Ikastetxeak IKT batzordea eta/edo erreferentziako irakasleak ditu, besteak beste, prestakuntza dinamizatu eta koordinatzeko.	Irakaskuntzako eta irakaskuntzatik kanpoko langileek garatu beharreko gaitasunak ezartzen dituen dokumentu bat du ikastetxeak, prestakuntza-planerako oinarri gisa balio duena. Gaitasuna norberak ebaluatu ahal izateko adierazleak jasota daude. Gainera, irakaskuntzako eta irakaskuntzatik kanpoko gaitasun digitala garatzeko prestakuntza-plana ere badago, urteko planaren barruan (Hobekuntza Plana, IKT Plana...). Familientzako prestakuntza-planak daude jasota. Irakasle eta irakaskuntzatik kanpoko langile guztiek prestakuntza-jarduera horietan parte hartzen dute. Ikastetxeak IKT batzordea eta erreferentziako irakasleak ditu, besteak beste, prestakuntza dinamizatu eta koordinatzeko.

	Oinarrizko maila	Tarteko maila	Maila aurreratua
1.9.– Berrikuntza eta lankidetzak	Irakasle batzuek pilotaje eta proiektu berritzaileetan parte hartzen dute IKTak erabiliz.	<p>Ikastetxearen urteko planean eta/edo prestakuntza-planean aintzat hartzen dira metodologiaren berrikuntza helburu duten ekintzak, IKTen erabileran sustengatuak.</p> <p>IKT batzordeak klaustroan proiektu berritzaileak ezartzea sustatzen eta zabaltzen du.</p> <p>Ikastetxeak beste erakunde batzuekin (beste ikastetxe, erakunde edo enpresa batzuekin) esku hartzen du berrikuntza-proiektuetan.</p> <p>Ikastetxeak irakaskuntzaren berrikuntza bultzatzen duten jakintza-trukerako jarduera eta ekimenetan antolatzen ditu eta/edo horrelakoetan parte hartzen du.</p>	<p>Ikastetxearen urteko planean eta/edo prestakuntza-planean aintzat hartzen dira metodologiaren berrikuntza helburu duten ekintzak, IKTen erabileran sustengatuak.</p> <p>IKT batzordeak klaustroan proiektu berritzaileak ezartzea sustatzen eta zabaltzen du.</p> <p>Ikastetxeak beste erakunde batzuekin (beste ikastetxe, erakunde edo enpresa batzuekin) esku hartzen du berrikuntza-proiektuetan.</p> <p>Ikastetxeak irakaskuntzaren berrikuntza bultzatzen duten jakintza-trukerako jarduera eta ekimenetan antolatzen ditu eta/edo horrelakoetan parte hartzen du.</p> <p>Irakasleak eta ikasleak (mailaren arabera), hezkuntzako eta/edo profesionalen sare, atari eta komunitateetan sartzten dira eta/edo horrelakoetan parte hartzen dute.</p>

2.– Administrazio-prozesuak.

	Oinarrizko maila	Tarteko maila	Maila aurreratua
2.1.– Dokumentazioa	<p>Ikastetxerako derrigorrezkoak edo garrantzizkoak diren dokumentuak (Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua, Ikastetxearen Urteko Plana, Ikastetxearen Curriculum Plana, Antolamendu eta Jarduera Araudiak, zirkularrak eta dekretuak...) digitalizatuta eta irakasle guztien eskura daude, ordenagailu batean edo zenbaitetan.</p> <p>Ikastetxearen berezkoetan gaitasun digitala aipatzen da.</p>	<p>Ikastetxerako derrigorrezkoak edo garrantzizkoak diren dokumentuak (Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua, Ikastetxearen Urteko Plana, Ikastetxearen Curriculum Plana, Antolamendu eta Jarduera Araudiak, zirkularrak eta dekretuak...) digitalizatuta eta irakasle eta ikasle guztien eskura daude, ikastetxeko sarean.</p> <p>Ikastetxearen berezkoetan gaitasun digitala eta erabilera onargarriak eta arduratsuak aipatzen dira (Antolamendu eta Jarduera Araudiak).</p>	<p>Ikastetxerako derrigorrezkoak edo garrantzizkoak diren dokumentuak (Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua, Ikastetxearen Urteko Plana, Ikastetxearen Curriculum Plana, Antolamendu eta Jarduera Araudiak, zirkularrak eta dekretuak...) digitalizatuta eta irakasle, ikasle eta familia guztien eskura daude, Interneten bidez.</p> <p>Ikastetxearen berezkoetan gaitasun digitala eta erabilera onargarriak eta arduratsuak aipatzen dira (Antolamendu eta Jarduera Araudiak).</p>
2.2.– Ordutegiak	<p>Ordutegiei eta zaintzaldiei buruzko informazioa formatu digitalean eta irakasle guztien eskura daude, ordenagailu batean edo zenbaitetan.</p> <p>Ikastetxeak formatu digital editagarrian erregistratuta ditu hauei buruzko dokumentuak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ikasle-taldeen zerrenda. • Talde bakoitzaren ordutegia eta irakasgaiak. • Irakasleen ordutegia eta eman beharreko irakasgaiak. • Bisiten ordutegia (familien harrera). • Berariazko ikasgelen ordutegia, esaterako: laborategiak, informatika-gelak, liburutegia, eta ingeleseko gela. 	<p>Ordutegiak eta zaintzaldiak aplikazio baten bidez egiten dira, eta informazioa irakasle guztien eskura dago, ikastetxeko sarean.</p> <p>Ikastetxeak formatu digital editagarrian eta, profilen arabera, ikastetxeko sarean eskuratzeko moduan erregistratuta ditu hauei buruzko dokumentuak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ikasle taldeen zerrendak. • Talde bakoitzaren ordutegia eta irakasgaiak. • Irakasleen ordutegia eta eman beharreko irakasgaiak. • Bisiten ordutegia (familien harrera). • Berariazko ikasgelen ordutegia, esaterako: laborategiak, informatika-gelak, liburutegia, eta ingeleseko gela. 	<p>Ordutegiak eta zaintzaldiak aplikazio baten bidez egiten dira, eta informazioa irakasle guztien eskura dago, Interneten bidez.</p> <p>Ikastetxeak erregistratuta eta, erabiltzailearen profilen arabera, Interneten eskuratzeko moduan ditu hauei buruzko dokumentuak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ikasle taldeen zerrendak. • Talde bakoitzaren ordutegia eta irakasgaiak. • Irakasleen ordutegia eta eman beharreko irakasgaiak. • Bisiten ordutegia (familien harrera). • Berariazko ikasgelen ordutegia, esaterako: laborategiak, informatika-gelak, liburutegia, eta ingeleseko gela.
2.3.– Espazioak eta baliabideak	<p>Espazio fisikoen eta baliabideen erreserbak kudeatzeko, formatu digitalean dagoen txantilo erako dokumentu bat bete behar da.</p>	<p>Espazio fisikoen eta baliabideen erreserbak aplikazio informatiko baten bidez kudeatzen dira, eta aplikazio hori ikastetxeko sarean dago eskuragarri.</p>	<p>Espazio fisikoen eta baliabideen erreserbak aplikazio informatiko baten bidez kudeatzen dira, eta aplikazio hori Interneten dago eskuragarri.</p>

	Oinarrizko maila	Tarteko maila	Maila aurreratua
2.4.– Inbentarioa	Irakasleek/ikasleek erabil ditzaketen tresnen zerrenda du ikastetxeak formatu digitalean (mikroskopiaok, tabletak, chromebook ordenagailu eramangarriak, 3D inprimagailuak, bestelako material didaktikoak...), horrelakoak derrigor edo irizpidez inbentariatzekoak badira.	Irakasleek/ikasleek erabil ditzaketen tresnen zerrenda du ikastetxeak formatu digitalean (mikroskopiaok, tabletak, chromebook ordenagailu eramangarriak, 3D inprimagailuak, bestelako material didaktikoak...), horrelakoak derrigor edo irizpidez inbentariatzekoak badira. Inbentariatutako elementuen zerrenda ikastetxeko sarean kontsulta daiteke.	Irakasleek/ikasleek erabil ditzaketen tresnen zerrenda du ikastetxeak formatu digitalean (mikroskopiaok, tabletak, chromebook ordenagailu eramangarriak, 3D inprimagailuak, bestelako material didaktikoak...), horrelakoak derrigor edo irizpidez inbentariatzekoak badira. Irakasleek Internetetik egin dezakete kontsulta (Sailaren aplikazioa alde batera utzita).
2.5.– Mantentze-lanak	Ikastetxeko mantentze-lanen kudeaketa (informatikoa, mekanikoa, elektrikoa...) formatu digitalean dagoen txantilo erako dokumentu baten bidez egiten da.	Ikastetxeko mantentze-lanen kudeaketa (informatikoa, mekanikoa, elektrikoa...) egiteko protokoloa dokumentu batean azaldu da, eta ikastetxeko sarean dagoen aplikazio informatiko baten bidez egiten da.	Ikastetxeko mantentze-lanen kudeaketa (informatikoa, mekanikoa, elektrikoa...) egiteko protokoloa dokumentu batean azaldu da, eta Interneten bidez egiten da.
2.6.– Informazioa kudeatzea	Erabiltzaileen politika bat dago antolamendua ez ezik, administrazioko edo kudeaketa artxiboei zein hezkuntza-baliabideei dagokienez zer eta non gorde eta horietarako sarbidea nork edukiko duen ere azaltzeko.	Erabiltzaileen politika bat dago antolamendua ez ezik, administrazioko edo kudeaketa artxiboei zein hezkuntza-baliabideei dagokienez zer eta non gorde eta horietarako sarbidea nork edukiko duen ere azaltzeko. Erreferentzia egiten zaio erabiltzaileen ikastetxeko plataformen eta inguruneen kudeaketari (sortzea, baimenak...); erreferentzia egiten zaie, orobat, plataformen eta inguruneen segurtasun-kopien kudeaketari.	
2.7.– Kudeaketa ekonomikoa	Ikastetxeko ekonomiaren kudeaketa eta plangintza aplikazio informatiko baten bidez egiten da.	Ikastetxeko ekonomiaren kudeaketa eta plangintza aplikazio informatiko baten bidez egiten da, eta aplikazio hori administrazioko edozein ordenagailutatik erabil daiteke.	Ikastetxeko ekonomiaren kudeaketa eta plangintza aplikazio informatiko baten bidez egiten da, eta aplikazio hori Interneten bidez erabil daiteke, baimenen arabera.

3.- Komunikazio- eta informazio-prozesuak.

	Oinarrizko maila	Tarteko maila	Maila aurreratua
3.1.– Ikasgelako komunikazioa	DBHko 1. mailatik aurrera, irakasleen % 20k, gutxienez, mezularitza-sistemaren bat erabiltzen du ikasleei ikasgelako hainbat gairi buruzko informazioa emateko (azterketak, bisitaldiak, lanak...).	Lehen Hezkuntzako 5. mailatik aurrera, irakasleen % 50ek, gutxienez, mezularitza-sistemaren bat eta ikasgelako agenda digitala erabiltzen du ikasleei ikasgelako hainbat gairi buruzko informazioa emateko (azterketak, bisitaldiak, lanak...).	Lehen Hezkuntzako 5. mailatik aurrera, irakasleen % 90ek hainbat web-aplikazio erabiltzen ditu ikasleei ikasgelako hainbat gairi buruzko informazioa emateko (azterketak, bisitaldiak, lanak...).
3.2.– Emaita akademikoak	Ebaluazio-emaitei buruzko informazio guztia, eta gainditu dutenen eta gainditu ez dutenen estatistikak (ehunekotan) txantilo digitaletan erregistratzen dira.	Etengabeko ebaluazioari buruzko informazio guztia, eta gainditu dutenen eta gainditu ez dutenen estatistikak (ehunekotan) ikastetxeko sarean kontsulta ditzakete irakasleek.	Etengabeko ebaluazioari eta estatistikei buruzko informazioa Interneten bidez kontsulta dezakete irakasle, ikasle eta familiek.
3.3.– Laguntza eta buletinak	Notak eta hutsegiteak formatu digitaleko buletinen edo txostenen bidez jakinarazten zaizkie familiei.	Notak eta hutsegiteak komunikazio digitaleko sistema baten bidez jakinarazten zaizkie familiei (adibidez, posta elektronikoa, aplikazioak...). Hartzaileak hala adierazten duenean baino ez dira erabiliko sistema tradizionalak.	Notak eta hutsegiteak sarbide mugatua duen web-aplikazio baten bidez jakinarazten zaizkie familiei. Sistema tradizionalak hartzaileak eskatzen duenean baino ez dira erabiliko.
3.4.– Barneko komunikazioa	Ikastetxeko barne-komunikazioak (deialdiak, aktak, ekimenak...) mezularitza-sistema digital baten bidez egiten dira, bide tradizionalak ere erabili arren.	Ikastetxeko barne-komunikazioak (deialdiak, aktak, ekimenak...) mezularitza-sistema digital baten eta agenda digitalaren bidez egiten dira.	Ikastetxeko barne-komunikazioak (deialdiak, aktak, ekimenak...) hainbat web-aplikazioren bidez egiten dira.

	Oinarrizko maila	Tarteko maila	Maila aurreratua
3.5.– Kanpo komunikazioa	Hezkuntza-komunitatearekiko eta beste erakunde batzuekiko ikastetxearen kanpo-komunikazioa webgunearen eta posta elektronikoaren bidez egiten da; hala ere, betiko bitartekoak ere erabiltzen dira xede horretarako.	Hezkuntza-komunitatearekiko eta beste erakunde batzuekiko ikastetxearen kanpo-komunikazioa webgunearen, agenda digital baten, posta elektronikoaren eta/edo sare sozialen bidez egiten da.	<p>Hezkuntza-komunitatearekiko eta beste erakunde batzuekiko kanpo-komunikazioa bi modutan egiten da: alde batetik, bi noranzkoko komunikazioa egiteko aukera ematen duten web-aplikazio batzuen bidez (hau da, erabiltzaileen iruzkin, erreklamazio, iradokizun eta ekarpenak jaso daitezke), eta bestetik, agenda digitalaren eta sare sozialen bidez.</p> <p>Ikastetxearen nortasun digitala ezartzen duen dokumentua dago (euskarri digitalak, zer sare sozialetan eta zer maiztasunez parte hartzea, xede-audientzia...).</p>